TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea
EGUNA / FECHA: 21/12/2016
HASIERA / INICIO: 20:15
AMAIERA / FINAL: 20:20

BERTARATUAK / ASISTENTES:
ALKATEA/ALCALDE
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL
Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera

Busturiko Gizarte-Etxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Batzorde Informatzailea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Lartitegi jaunak gai ordeneko 9. puntutik aurrera joan egin zen. Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak.

Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatu zaien gai ordenaren arabera, eta honako akordio proposamenak egin ziren:

En el Gizarte etxea de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

**1.- Aurreko saioko akta.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen 2016ko abenduaren 7ko saioko akta onartzea.

**1.º.- Acta de la sesión anterior.-**

La Junta de Gobierno, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 7 de diciembre de 2016.

**2.- Euskara-ikastaroagatiko diru-laguntza eskaera.-**

Euskara-ikastaroak egiteko diru-laguntza eskaerei dagokienez jasotako dokumentazioa ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen diru-laguntzak ondokoei ematea:

**2.º.- Petición de subvención por curso de euskera.-**

Vista la documentación presentada en relación a la petición de subvención por realizar cursos de euskera, la Junta de Gobierno, por unanimidad, acordó concederles las siguientes ayudas económicas:

- J. I. L.: 169,00 €
- I. G. O.: 150,00 €
- I. S. C.: 149,70 €
- T. U. C.: 217,50 €
- I. C. M.: 194,70 €
- I. O. S.: 162,50 €

**3.- TransURDAIBAIri buruzko idazkia.-**

Helmuga Kirol Klubak igorritako idazkia ikusirik, 2017ko uztailaren 15ean egingo den TransURDAIBAI kirol-probari buruz, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen ondokoen berri ematea:

1. Udala prest dagoela proba egiteko behar den laguntza logistikoa emateko, bere aukeren barruan.
2. Proban tokiko elkarte batek edo gehiagok lagundu behar dutela.
3. Probaren ibilbidea Busturia udalerrian izan behar dela, nagusiki.
4. Udala probari buruzko xehetasun gehiagoren zain geratuko dela.

**3.º.- Escrito sobre transURDAIBAI.-**

Visto el escrito remitido por Helmuga Kirol Kluba sobre la organización de la prueba deportiva transURDAIBAI el 15 de julio de 2017, la Junta de Gobierno, por unanimidad, acordó informarles de lo siguiente:

1. El Ayuntamiento está dispuesto a prestar apoyo logístico a la realización de la prueba dentro de sus posibilidades.
2. Que en la prueba debe colaborar una o varias asociaciones locales.
3. Que el circuito de la prueba debe transcurrir fundamentalmente por el municipio de Busturia.
4. Que el Ayuntamiento queda a la espera de mayores detalles sobre la prueba.

**4.- Busturia Txirrindulari Taldearen eta Mape Mendi Taldearen idazkia.-**

Busturia Txirrindulari Taldearen eta Mape Mendi Taldearen

**4.º.- Escrito de Busturia Txirrindulari Taldea y Mape Mendi Taldea.-**

Visto el escrito de Busturia Txirrindulari Taldea y Mape

idazkia ikusirik, zeinetan eskatzen den 2 metroko zabalerako oinezkoen bidexka edo bidegorria gaitzea BI-2235 eta BI-3163 errepideetako bidegurutzetik (Txitxiene) Busturiko Udalaren konpostatze-plantaraino, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen eskaera Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia eta Lurralde Garapenerako Atalera bideratzea, lan hori egitea posible den azter dezaten.

Mendi Taldea, en el que solicitan que se habilite un sendero peatonal o bidegorri de 2 metros de ancho entre el cruce de las carretaras BI-2235 y BI-3163 (Txitxiene), y la planta de compostaje del Ayuntamiento de Busturia, la Junta de Gobierno, por unanimidad, acordó remitirla al Departamento de Desarrollo Económico y Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia, para que estudien si es posible que ejecuten esa obra.

**5.- Harri Berriren idazkia.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Harri Berri Elkarteak aurkeztutako kitapena onartzea, Santiago eta San Migel jaietan egindako probei dagokienez.

**5.º.- Escrito de Harri Berri.-**

La Junta de Gobierno, por unanimidad, acordó aprobar la liquidación presentada por Harri Berri Elkartea, respecto de las pruebas celebradas en las fiestas de Santiago y San Miguel.

**6.- 52/16 hirigintza-lizentziako espedientea.-**

Euskadiko Kosten Mugaketak igorritako idazkia ikusirik, “Villa Matilde” Axpe auzuneko 139. eraikineko obra-lizentzia eskaerari buruz, zeinetan ezartzen den lanak egin baino lehen bide-zortasuneko lanak egin behar direla itsasoarekiko mugakide den lursailaren perimetro osoan, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen testu hori joan den azaroaren 23an emandako hirigintza-lizentziako espedientearen barruan sartzea.

**6.º.- Expediente de licencia urbanística 52/16.-**

Visto el escrito remitido por la Demarcación de Costas del País Vasco, en relación a la solicitud de licencia de obras en el edificio n.º 139 del barrio de Axpe “Villa Matilde”, en el que se establece que, previamente a la ejecución de las obras, deben ejecutarse las de apertura de servidumbre de tránsito en todo el perímetro de la parcela lindante con el mar, la Junta de Gobierno, por unanimidad, acordó incluir este condicionado dentro de la licencia urbanística concedida el pasado 23 de noviembre.

**7.- Ikastaroak egiteko lokalak.-**

Altamirako Kultur Etxean pilates- eta gimnasia-ikastaroetan erabiltzen diren materialak pilatzearen ondorioz sor daitezkeen arazoen aurrean, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen joan den abenduaren 7an hartutako erabakia atzera botatzea, zumba- eta gimnasia-ikastaroei dagokienez, eta, beraz, ez aldatzea egun ikastaro horiek ematen ari den gela; halaber, abenduaren 22an proba egitea erabaki zen, zumba-ikastaroko musikaren bolumena nabarmen jaitsiz gero udal-liburutegian eragindako arazoak murrizten diren egiaztatzeko, egun horretan Euskara Batzordearen batzarra egingo baita bertan.

**7.º.- Locales para cursillos.-**

Ante el problema que puede surgir en la Casa de Cultura de Altamira como consecuencia de la acumulación de materiales utilizados en los cursos de pilates y gimnasia, la Junta de Gobierno, por unanimidad, acordó revocar el acuerdo adoptado el día 7 de diciembre en lo que respecta al cambio de ubicación de los cursos de zumba y gimnasia, y no cambiar los locales en los que se están impartiendo actualmente los cursos, así como realizar el día 22 de diciembre una prueba para comprobar si, reduciendo considerablemente el volumen de la música del curso de zumba, se reducen las molestias ocasionadas en los locales de la biblioteca municipal, en los que ese día se celebrará una reunión de la Comisión de Euskera.

Eta besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudan Idazkariak sinatuta.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

| Alkatea/El Alcalde, | Idazkaria/El Secretario, |
| --- | --- |
| Fdo: Aitor Aretxaga Telletxea | Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez |